

2006KO ZILARREZKO GEHITU SARIA

Eusko Jaurlaritzak onura publikoko izendatutako GEHITU, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteko Koordinazio Kontseiluak 2006ko maiatzaren 5eko bileran erabaki du, HIESaren aurkako Batzordeak hala eskatuta:

2006KO GEHITU ZILARREZKO SARIA EMATEA DONOSTIA OSPITALEKO GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN UNITATEARI.

2006ko ekainean betetzen dira 25 urte, dakigula, GIB-HIESak jotako lehen gaixoa hil zenetik. Nahitaezkoa da, eta halaxe egiten da, horrelako gaixoei ikuspegi zabaleko osasun-laguntza ematea: ikuspegi psikologikoa, soziala, bihozbera... Eta hain zuzen ere, azken puntu horretan datza aurtengo saria emateko arrazoi nagusia.

Adeitasuna, tratu bikaina eta arreta bihozbera jaso dute GIB-HIESa dutenek Donostia Ospitaleko Gaixotasun Infekziosoan Unitatera joan diren bakoitzean edo ospitaleratuta egon direnean, bertako langile guztiengandik.

Urte askotan, baita gaur egun ere, beldurra, uste okerrak eta mitoak izan ditugu GIB-HIESaren transmisio-moduen inguruan, eta ez daukagu ahazteko EAEn aitzindaria izan zen Donostia Ospitaleko Gaixotasun Infekziosoan Unitatean lan egin duten medikuek, erizainek eta gainerako langile askok, batez ere hasierako garai hartan, bere borondatez erabaki zutela lanpostu horietan aritzea.

Lanpostuari dagokion zeregina betetzetik haratago, gorputz eta arima aritu direnak eskertu nahi ditugu sari honen bidez, tratamendu terapeutikoa emateaz gain, gaixoek hala behar izan dutenean haien ondoan egoten jakin izan dutelako.

Donostian, 2006ko maiatzaren 5ean